



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Aldundiak "beherakada handia" aurreikusten dau Gizarteratzeko Laguntza Berezien eskarietan

Bilbon, 2014ko irailaren 29an

Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak iragarri dauenez, aurton “beherakada handia” aurreikusten da Gizarteratzeko Laguntza Berezien eskarietan. Uztailaren 31ra arte “232” eskari egin ziran. Hau da, urte amaierara arteko datuak estrapoletan badira eta 2013an egindako “608 eskariakaz” alderatzen badira, beherakadea “%34koa” izango da. Ehuneko hori harik eta handiagoa da 2012ko “687” eskariakaz alderatzen bada. Aldundiak aurreikusi dauenez, ekitaldi honetan “1.300.000 euro inguru” inbertituko ditu Diru-Sarrereren Berme Errenta (DSBE-RGI) jasotzeko aukerarik ez daukien eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dagozan 23 urtetik beherakoek osatutako taldeari laguntzeko.

Diputatuak azpimarratu dauenez, bere sailak “jasoten diran eskari guztiak” erantzuten ditu. Beherakada iraunkor horren “arrazoiak” –Ardanzaren berbetan– “Bizkaira bakarrik heltzen diran adinbako atzerritarren kopuruan izandako jatsiera” da, laguntza horreek, etorkinen oinarritzko beharrak betetera bideratzen diralako, batez be. Beherakada hori dala eta, 2014. urtean laguntza horreei aurre egiteko hasera batean aurreikusitako aurrekontu partideak “50.000 euroko” soberakina erakutsiko dau, eta kopuru hori, gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dagozan beste talde batzuei zuzenduta egongo da. “Zehatzago esanez, drogamenpekotasunaren mundutik datozen pertsonari zuzendutako 27 plaza dituan” eta joan dan ekainean martxan jarri zan “Abegi Ostatu” egoitzaren gastuak ordainduko ditu, eta baita “buruko gaixotasunak daukiezan eta baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonen” arretea eskintzen jaken beste zentro bateko beste gastu batzuk be.

Ardanzak, EH Bildu taldeak eskatutako agerraldian emon ditu datu horiek. Talde abertzaleak azalpenak eskatu ditu, azaldu daian Aldundiak zergatik “murriztu” dauen Gizarteratzeko Diru-laguntzen partidea eta argitu daian nora bideratuko dan partida honetatik murriztutako dirua. Ardanzak ezeztatu egin dau murrizketarik gertatu danik. Diputatuak esandakoa entzun eta gero, Amaia Agirresarobe Bilduko batzordekideak salatu egin dau 2010. urtean “4 milioi euroko” aurrekontua izan eban zerbitzu horren murrizketan Aldundiak bete izan dauen lana. Bere eretziz, Diputatuaren agerraldia “ezkutatzea eta manipulazinoa” izan da, baina, geroago, Ardanzak hori ez dala holan izan adierazo dau.

“Ezkutatzerik eta manipulaziorik, ezta inondik inora”. Ardanzak adierazo dau murrizketa hori 2011ko azaroan izandako lege aldaketeagaz be badagoala erlazionauta (Azaroaren 24ko 4/2011 legea, Diru-Sarrereren Bermerako eta Gizarteratzeko Legea aldatzen dauena). Lege horrek “ondorioak” izan ebazan, prestazinoa jaso ahal izateko eskakizunak aldatu egin ziralako. Aldundiak “hilebete geroago” egokitu eban lege hori, eskari hori egiten daben eta DSBE-RGI-ren babesia lortzen ez daben pertsona “guztiei” laguntza emoten jarraitzen dauen Foru Dekretuaren bitartez.

Azalpenak Bizkaiko Ganbarako generako taldeak konbentzidu ditu. Eduardo Andrések (PP) adierazo dauenez, eskarien murrizketea “positiboa” da, eta kritikau egin dau EH Bilduk



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eztabaida hori Batzar Nagusietara “hirugarren aldiz” eroan izana. “Sobran” beteten dira behar guztiak, eta ganerako dirua gizarte bazterketa egoeran dagozan pertsoneri dago zuzenduta, esan dau Jon Larreak (EAJ-PNV). Juan Otermin batzordekide sozialistaren eretziz, diputatu andreak emondako erantzuna “logikoa eta nahikoa” da.

GETXON TOPAGUNEA EZARTEKO ESKARIA

Beste alde batetik, Gizarte Ekintzako Batzordeak, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen bat onartu dau. Proposamen horretan eskaerea egiten jako Aldundiari, “Getxoko Udalagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz beharrezkoak izan daitezkean tramiteak eta alkarrizketak hasi daizan, Deribazio Judizialaren Bidezko Familia Topagunea martxan jarteko Getxon”. Ekimenak, saioan egon diran PP, PSE-EE eta EH Bildu taldeetako 6 ordezkarien aldeko botoa eta EAJ-PNV-ko sei ordezkarien kontrakoa jaso dau. EH Bilduko ordezkari bat ez egotearen ondorioz gertatutako bardinketea, boto ponderauaren mekanismoaren bitartez ebatzi da (29 batzarkide alde eta 22 kontra).

Popularren ekimenaren alde agertu diran taldeen eretziz, “krisian” dagozan familientzako topagunea “beharrezkoa” da, Bizkaian dagozan ganerako lekuak “oso beteta” dagozalako, Eduardo Andradek (PP) esan dauenez. Juan Otermin (PSE) bat etorri da popularrekin, zabaltze hori “Getxoko Osoko Bilkurako gehiengoaren borondatea errespetetea” izango litzatekela esatean. Getxoko Udalak gai berari buruzko antzeko eskaria onartu dau orain denpora gitxi egindako osoko bilkura batean.

EAJ-PNV bat etorri da ekimenaren “izpirituagaz”, baina, bere ustez, zabaldu aurretik, Eskumaldeko herrian hori egitearen “bideragarritasuna” balorauko dauen “beharren azterlana” egin beharko litzateke. Eginbehar hori Eusko Jaurlaritzaren esku dago, bera dalako Deribazio Judizialaren Bidezko Familia Topaguneen gaian “eskumenak” dituan erakundea. Ainara Aretxabaleta jeltzalearen ustez, badagoz “behar gehiago daukien beste udalerrri batzuk”. Ez dau lehentasuneko gai moduan ikusten, kontuan hartzen bada 2013an ganerako puntuetan “Getxoko 11 umeri” eskini jakela arrete, bere berbetan. Alternatiba “logikoa” Bilboko topagunea indartzea izango litzateke.

FAMILIA-HARRERAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZINO KANPAINEA

Saio berean, Aldundiak, familia-harreraren inguruko sentsibilizazinoa lantzeko eta familia-harrera bultzatzeko kanpaina zabaltzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sinatuko daben lankidetzeta-hitzarmena aurkeztu dau. Hitzarmen hori, Bizkaiko ikastetxeetako lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako “irudi eta kontakizun lehiaketan” gauzatuko da, Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako diputatuak azaldu dauenez. Hitzarmenaren testua aho batez berretsi da.

11 eta 12 urteko umeei zuzendutako lehiaketak “ikasleakaz eta, bide batez euren familiakaz, familia-harreraren gaia lantzen jarraitzeko aukerea emongo dau, familian alkarregaz bizitzeko beste modu bat dala erakutsiz eta horren beharra daukien umeei laguntzeko sentsibilizatuz”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación augura una "fuerte disminución" de las solicitudes de Ayudas Especiales para la Inclusión Social

Bilbao, a 29 de septiembre de 2014

La Diputada foral de Acción Social, Pilar Ardanza, ha anunciado que durante este año se prevé una "fuerte disminución" del número de solicitudes de Ayudas Especiales para la Inclusión Social que hasta el 31 de julio se situaron en "232", lo que supondrá una reducción del "34%" si se extrapolan los datos hasta finales de año y se comparan con las "608 solicitudes" registradas en 2013; porcentaje que sería aún superior si se equiparan con las "687" de 2012. La Diputación estima que invertirá durante este ejercicio "aproximadamente 1.300.000 euros" para ayudar a un colectivo compuesto por menores de 23 años en riesgo de exclusión social sin posibilidad de acceder a la Renta de Garantía de Ingresos (RGI). La diputada ha subrayado que su departamento atiende "todas las demandas" que reciben.

La razón principal de esta reducción continuada se encuentra –según Ardanza– en el "descenso del número de menores extranjeros no acompañados que llegan a Bizkaia", ya que estas ayudas se ofrecen mayormente para cubrir las necesidades básicas de estos inmigrantes. Esta disminución explica que la partida presupuestada inicialmente para soportar estas ayudas a lo largo de 2014 sume un excedente de "50.000 euros" que será destinado a otros colectivos en riesgo de exclusión social. "En concreto", sufragará los gastos del centro residencial "Abegi Ostatu" que se puso en marcha en junio pasado, "con 27 plazas para personas que proceden del mundo de la drogadicción", y otros gastos de otro centro en donde se atiende a "personas en riesgo de exclusión con enfermedades mentales".

Ardanza ha ofrecido estos datos en una comparecencia solicitada por el grupo EH Bildu que pedía explicaciones de los motivos por los que la Diputación había decidido "reducir" esta partida y quería aclaraciones sobre el destino de este remanente. Tras escuchar las explicaciones de Ardanza, quien ha negado que se haya producido un recorte presupuestario -"menos recursos por una menor demanda"-, la apoderada de Bildu Amaya Aguirresarobe ha denunciado el papel que la Diputación ha tenido en la merma de esta demanda que en 2010 llegó a contar con un presupuesto de "4 millones de euros". En su opinión, la intervención ha supuesto un ejercicio de "ocultación y manipulación" que la diputada ha negado rotundamente con posterioridad.

"De ocultación y manipulación, nada de nada". Ardanza ha señalado que esta reducción tiene que ver también con el cambio legislativo que se produjo en noviembre de 2011 (Ley 4/2011, de 24 de noviembre, de modificación de la Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social) y que tuvo unas "consecuencias" al cambiarse los requisitos para ser beneficiario de esta prestación y cuya adecuación foral llegó "un mes después" a través de un Decreto Foral que continúa dando cobertura a "todas" las personas que demandan esta ayuda y que no alcanza la protección de la RGI.

Su explicación ha convencido al resto de grupos de la Cámara vizcaína. Eduardo Andrés (PP) ha mantenido que la reducción de solicitudes es "positivo" y ha criticado que EH Bildu lleve por "tercera vez" este debate a las Juntas Generales. Se cubren "de sobra" las necesidades y el



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sobrante va dirigido a personas en exclusión social, se ha congratulado Jon Larrea (PNV). Para el apoderado socialista Juan Otermin, la respuesta dada por la diputada es “lógica y suficiente”.

PETICIÓN DE UN PUNTO DE ENCUENTRO EN GETXO

Por otro lado, la Comisión de Acción Social ha aprobado una Proposición No de Norma del grupo juntero Popular Vizcaíno (PP) que insta a la Diputación a “iniciar los trámites y conversaciones necesarias con el Ayuntamiento de Getxo y el Gobierno Vasco para la puesta en marcha de un Punto de Encuentro por derivación judicial en Getxo”. La iniciativa ha contado con el apoyo de los 6 representantes de PP, PSE-EE y EH Bildu presentes en la sesión, y el voto contrario de los 6 representantes de PNV. El empate, consecuencia de la no presencia de un representante de EH Bildu, se ha resuelto por el mecanismo del voto ponderado (29 junteros a favor y 22 en contra).

Los grupos que apoyaban la iniciativa popular han considerado que el punto de encuentro para familias “en crisis” es “necesario”, ya que los otros centros existentes en Bizkaia se encuentran “bastante saturados” ha dicho Eduardo Andrade (PP). Juan Otermin (PSE) ha coincidido con él en que esta apertura supondría “respetar la voluntad mayoritaria de Getxo” que ha aprobado recientemente en un pleno una petición similar en el mismo sentido.

El PNV ha mostrado su conformidad “con el espíritu” de la iniciativa, si bien considera que, antes de su implantación, se debería realizar “un estudio de necesidades” que valore la “viabilidad” de su creación en la localidad de la Margen Derecha, función que debe recaer en el Gobierno Vasco que es la institución “competente” sobre los puntos de encuentro por derivación judicial. A juicio de la jeltzale Ainara Aretxabaleta, existen “otros municipios con mayores necesidades”. No ve en ello una prioridad puesto que en 2013, el resto de puntos familiares atendió a “11 niños de Getxo”, según ella. Una alternativa “lógica” a la saturación de los centros sería reforzar el punto de encuentro de Bilbao.

CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN PARA EL ACOGIMIENTO FAMILIAR

En la misma sesión, la Diputación ha presentado el convenio a suscribir entre esta Institución y el Gobierno Vasco, para la difusión de una campaña de sensibilización y promoción del acogimiento familiar. Esta iniciativa se concretará en la realización de un “concurso de imagen y relato” dirigido a los alumnos y alumnas de 5º y 6º de primaria de Bizkaia, ha explicado la diputada de Acción Social, Pilar Ardanza. El texto del convenio ha sido ratificado por unanimidad.

El certamen dirigido a niños y niñas de 11 y 12 años permitirá “trabajar con el alumnado, y por extensión con sus familias, la realidad del acogimiento familiar como una forma de convivencia en familia y sensibilizarlos para ayudar a niños y niñas que lo necesiten”.